



Astekaria



elgoi

Kantautoreen artean leku bila

ZIGOR GAZKEZ



ALBAITARITZA KLINIKA

ABERE TXIKIETAN ESPEZIALIZATUAK

San Roke, 26 (tren geltokiaren gainean) ELGOIBAR

Telefona 74 07 04 • LARRIALDIK (24 ordu) 908 87 39 40

ORDUTEGIA: Goizez 11-13, arratsaldetan 5-8 eta larunbatetan 11-13,30

**IREKI
BERRIA**



Sukalde eta altzari erakusketa ikusgarria 100 logelatik gora ikusgai

Aukera zabala
egongela, logela eta
tresiloetan.

Klasikoak, modernoak,
errustikoak eta
jubenilak.

Hiru solairuko
3.000 m²ko
erakusketa.

ALTZARIAK

Itziar gaina - Tel. 19 91 00 - DEBA

COLCHON

Locey

Larunbat
arratsaldetan
IREKITA



sake
KOPERATIBAK

NEKAZARI KOOPERATIBA

San Frantzisko 24 • ELGOIBAR • Tel: 74 07 62
Itziaroko industrialdea E-13 • ITZIAR • Tel: 19 93 00



ARDIENTZAKO GENEROAN PREZIO BEREZIAK

**Ardientzako
udazken-negurako elikagaiak**

- Ardientzat egokitutako pentsu konposatua
- Kalitate oneko pulpa koskortua
- Algodoi hazia
- Baba txikia (alea edo ehoa)
- Artoa (alea edo ehoa)
- Alpapa koskorra
- Garagarra, garia, oloa,...

**ARTALDEARI EGOKITUTAKO
NAHASKETAK NAHI DEN
PROPORTZIOAN**

Etxerainoko banaketa

elgoi**BARREN**

Nafarroa enparantza 2

☎ 74 41 12

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,

Jasone Osoro.

MAKETATZAILEA:

Maitte Rementería.

PUBLIZITATEA:

Nekane Etxaniz.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martín,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegí, Andres

Alberdi, Esteban Antxustegi,

Pello Arrieta, Felix

Arrizabalaga, Mikel Artola,

Izaskun Elizburu, Jon Etxabe,

Jon Eugi, Ina Garagarza,

Joseba Gorosabel, Lorea

Gorostiaga, Amaia

Gorostiza, Xabier Gorriti,

Ana Igartua, Maitte Iriondo,

KOKOE, Joseba Konde,

Edurne Korta, Imanol

Larrañaga, Javi León,

Antonio Matias, Susana

Mujika, Maitte Solozabal,

Karmelo Urdangarin, Julen

Zabaleta.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.

(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.500 ale

LEGE GORDAILUA: SS-1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Francoren zintzilikarioak

Goenkalezale garenok ia egunero izaten dugu aukerarik Francisco Franco Bahamonde espainiar “caudilloa” birgogoratzeko. Euskarazko birao edo palabrota gutxi daudela esaten dugunontzat, paregabeko laguntza izan da Goenkaleko Joxe Marik Francorekin duen erlazio partikular honetatik sortutako birao erretaila. Bada, beraz, loturarik “caudilloa” eta euskal hizkuntzaren artean.

Duela ia 20 urte gure artetik joandako “caudillo” honek euskararen arrastorik ez bazuen ere, hitz batzuek belarrian min ematen omen zioten. “-Eta” atzizkiak osatzen ziren hitzek esanahia gogorzalea zuten ustean, beraiekin bukatzea erabaki zuen. Halere, izen horiek erabat desager ez zitezen, caudillo linguista honek bere irtenbide partikularra topatu zion arazoari. Honela, “-eta” atzizkia “del caudillo” koletilaz ordezkatzeko proposatu zuen. Hala nola, Amezketak== Ametz


del Caudillo, Berasetak == Beras del Caudillo...

Egunak joan egunak etorri, euskal baserri, herri eta abizenen izenak aldatzeari ekin omen zion. Baina, aizue! Tolosa ondoko Anoetara iritsi eta akabo bere teoriak! Nola ba! Ano del Caudillo! ez, ez zen posible. Eta hutsean gelditu ziren bere intentzioak. Halere, beldur naiz datorren martxoan ospatuko diren hauteskunde orokorretako emaitzen arabera, Moncloaren jabe berri izango direnek horrelako teoriaren bat aterako dutenentz. Beraz, irakurle maitea, jakin ezazu zure baserriaren izena edo abizena atzizki horrekin bukatuz gero, agian aldaketak gerta daitezkeela.

Kontuak kontu, aurtengo munduko txirrindulari txapelduna Anoetarra da, ezta?

Izaskun Elizburu

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*





GALDERAK

Ba al dago Sigmako zubi inguruan semafororik ipintzeko asmorik? Udalarakin jarri gara harremanetan eta bertatik esan digutenez aztertzen ari dira toki jakin horretarako zein den soluziorik onena. Momentuz trafiko dentsitate neurtu nahi dute eta ondoren erabakiren bat hartuko dela adierazi digute.



KEXAK

- Hiru lagunen kexa da honako hau: "Urriaren 28an, larunbata, Institutuko gazteak pegatinak ipintzen ibili ziren ikasbidaiarako dirua ateratzeko. Ez dugu uste dirua horrela eska daitekeenik, dirua lana eginda edo zerbait eskainita irabazi behar da".
- Gazte batek deitu digu urriaren 28an Karakate inguruan zebiltzan Ertzainek ez zutela bat ere ondo ematen paisaiarekin esateko.



TXALOAK

Irakurle batek deitu digu BARRE-Neko kolaboratzailea den Pello Arrieta txalotzeko. madalako iturriari buruz idatzitakoa benetan interesgarria iruditu zitzaion eta "linea horretan" jarraitzeko eskatu nahi dio. Bere ustez artikulua arinek estimazio handiagoa izango dute.

ESKUTITZAK

Hau ez da hemen bukatzen

Bi elgoibartar gazteren atxilotak izan ziren larunbat arratsaldeko "istiluen" ONDORIOA. Era berean larunbat arratsaldeko protesta ekintza, Estatu espainoleko hainbat espetxetan euskal presoak aurrera darraiten gose grebaren ONDORIOA izan da. Hau urteetan aurrera eraman izan den dispertsio politikaren salaketa ilegalean gauzatu. Ez da, ordea, Elgoibarkoa, salaketa ilegal bakarra izan; presoan dispertsio politika ilegalaria, Euskal Herriko txoko askotatik erantzun zaio eta erantzungo zaio; batzuetan legalki, besteetan ilegalki. Dispertsio politika ilegalek presoan zentzu politikoa onartzen du praktikoki. Beraz, preso politikoa, egoera politiko baten ondorioa dela esan dezakegu.

Egoera politiko hori konpontzen ez den bitartean, beraz, kontenedoreak, Euskal Herriko kaleetan erreko diren gauzarik arruntenak jarraituko dute izaten.

Bestalde, egoera politiko hau konpontzeko estintoreen beharra ikusten dutenak, jakin bezate,

1- Kontenedoreen erreketa suposatzen duen gastu publikoa, aski konpentsaturik gelditzen dela Ertzaintzak ezker abertzalearen aurka ekiteko, aurrekontu orokorretatik jasotzen duen diruarekin.

2- Agian, hurrengo sutea itzaltzeko ez dutela nahi adina estintore izango.

Elgoibarko Jarrai

BARRENeke kexari erantzuna

Lehenago lorategiak txukun zainduta dauzkagulako txalotuak izan ginen bezala, kexen atalean agertzea tokatu zaigu oraingoan futbito porteriak falta direlako. BARRENeke orriak erabili nahi ditugu falta diren porteria horiekin zer gertatu den azaltzeko eta konponbideak aurreratzeko.

Porteriak eta saskibaloï kanastak apurtuta daude erabilera desegokia izan dutelako: kirolean aritu beharrean, batzuk gainera igo dira, apurtu arte. Horrela hautsi izan dira porterien langak eta kanasten oinarriak.

Hau ez da egin izan diguten kalte bakarra. Behin baino gehiagotan gertatu izan zaigu zikinak eta errausak garbitu beharra izatea.

IMHren helburua instalazioak guztion eskuetan uztea izan da beti. Bide horretatik IMHk ez du bere ustea aldatuko. Horregatik porteriak berritzeari eta kanasten konponketari ekin diogu, eta zikindutako bazterrak garbituko ditugu. Geurea, geurea bezala gordeko dugu baina denei eskatzen diegu era berdinean jokatzera. Beraz, erabil dezagun IMHren gunea norberarena balitz bezala.

IMH

Lanbide Heziketako Zuzendaritzaren oharra

Joan den astean BARRENeke agertutako kexari erantzunez, zera esan behar dizuegu: ezezagun batzuk apurtu zuten porteria konpontzen ari garela eskolan bertan.

LHIko zuzendaritza

HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





Aste honetako erretratua **Karmele Floresek** lagatakoa da. Erretratua **1957. urtean** atera zuten Karmelek Córdobara alde egin behar zuelako.

Karmele Cordoban jaiotakoa da eta txikitik Elgoibarrera etorri zen bizitzera. 15 urte zituenen Córdobara bueltatu zen berriz ere, eta Elgoibarrera gehiagora etorriko ez zela pentsatzen zuenez, bertako lagunekin goiko erretratua ateratzea erabaki zuen.

Bizitzako gora-beherak. Joan eta handik bost urtera berriz bueltatu zen Elgoibarrera. Gaur egun hemen bizi da.

Ikus dezagun zeintzuk ziren armeleren orduko lagunak. Tente, ezkerretik hasita:

M. Jesus ..., **Kontxi Riaño**, **Arantxa Arrieta**, **Karmele Flores**, **Arantxa Bikondoa** eta **Puri Juaristi**.

Eserita: **Mertxe 'Usetxe'**, **Belen Juaristi**, **Ana Mari Lasa**, **Maria Luisa Galdos** eta **Maria Luisa Arkarazo**.



*Eskulanean
saiatzzen gara
Pastelak
Tartak
Izozkiak
Bonboiak*

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

JOSE ANGEL ZABALA

URDAITEGIA

Berezitasunak:

Bakilaua

Merkatu Plaza 33-34

Zer da heriotza?

Azaroaren leian Domusantu eguna ospatu zen. Kristauek egun horretan familian eta inguruan hil zaizkien pertsonak gogoratzen dituzte. Kanposantu-

ra joan eta haien alde otoitz egiten dute. Baina, munduan beste hainbat erlijio daude eta horien jarrera heriotzaren aurrean bestelakoa izan ohi da eta badira erlijiorik ez dute-

nak ere. Guk, hiru elgoibartarren iritziak jaso ditugu, heriotzaren inguruan bakoitzak duen iritzia. Kristau batekin, Jehovahren lekuko batekin eta agnostiko batekin elkartu gara.

ENRIKE LARRANAGA

"Heriotza iristen zaidanean lasai egongo naiz"

- Sinesmendun baten ikuspuntutik, zer da heriotza?

- Bizitzak duen pauso bat gehiago. Heriotzarekin gorputza desegin egiten da baina izpirituak bizirik jarraitzen du. Egunen batean berpiztu egingo gara, Jesusekin gertatu zen bezala.

- Zer da zerua?

- Zerua Jainkoa da eta Jainkoa errealitate guztia da, gure begietan dago, Berak ematen digu bizia. Jainkoa bizitza osoa da, DENA da, azken finean MAITASUN OSOA da....

- Eta infernua?

- Jainkoaren Maitasunetik kanpo bizitzea da eta hortik sortzen dira egoera mingarri guztiak.

- Beldurra al diozu heriotzari?

- Bat ere ez. Nik badakit hiltzen naizenean bizitza hobea izango dudala, Jesusengan sinesten dudalako, fedea dudalako. Horregatik, heriotza iristen zaidanean, lasai egongo naiz.

- Zu bezalako gutxi daude, ordea.

- Gizakiok dena dramatizatzen dugulako, dena konplikatzen dugulako.

- Bizitza hobea badago hil eta gero, zer da oraingo bizitza?

- Pozik bizitzeko egina dago bizitza, hori da bizitzaren zentzua,



gutxi iruditzen al zaizu? Horretarako norbera den bezalakoa izan behar da, norberak bere buruarekin leial izan behar du. Hori da zoriontasuna eta azken finean zoriontasuna maitasuna da. Hil eta gero, bizitza etengabeko maitasuna izango da, etengabeko poza.

- Nola ospatzen duzu Domusantu eguna?

- Oso pozik, nerretzat egun pozgarria da. Etxean hil diren guz-

tiekin sekula baino gehiago komunikatzen naiz egun horretan. Orixeek idatzi zuen bezala:

“Ernal-iturria nigan daukadala Jainkoaz hain antzu! Nondik naiz ibili?

Aunitz esker! Jaunak egin baitit argi

Ez zadan argi hau nik itzal, ez ere edozein mintzori ta argiri

jaramon:

hemen daukak oro: etxe barnen nagon”.

Agnostikoa

- Ez duzu sinesmenik?

- Bai horixe, baina ez dut Jainko batean sinesten. Nik, bizitzan sinesten dut, pertsonengan, abere eta landareengan... Ikus ditzakedan, uki ditzakedan gauzen sinesten dut. Biblia irakurrita dut, testu liburu bezala zoragarria da baina hortik aurrera, ez dut sinesten.

- Zein da bizitzaren zentzua?

- Bizitzea da garrantzitsua eta ahalik eta hobeen bizitzen saiatu behar gara, familiarekin, lagunekin, ingurugiroarekin armonian.

- Eta heriotza, nola ikusten

ROSI GARATE

"Bibliak dionez heriotza loaldi bat da" (146:3,4 salmoa)

- Zer da heriotza?

- Bizitzaren aurkakoa. Gorputzak ez du funtzionatzen, ezin du arnasarik hartu, ezin du pentsatu... Hil eta gero dena amaitzen da, gizakia ez da existitzen. (Ezekiel 9:5, 10)

- Ohartzen al gara gure heriotzaz?

- Jesukristok heriotza loarekin parekatu zuen (Juan 11: 11-14,23-26). Hiltzen garenean, lo bezala gaude, inkonziante. Ez gara ezertaz ohartzen, ez egiten diguten hiletaz, ez gure ingurukoek sufritzen dutenaz...

- Eta arimarekin zer gertatzen da?

- Bibliaren arabera, arima pertsona da. Ni, Rosi Garate, hiltzen naizenean, nere arima ere hiltzen da. Arima inmortal ez da Biblikoa (Ezekiel 18:4,20) (Mateo 26:38).

- Beraz, zer dago heriotza eta



gero?

- Pertsona bakoitzak bizitzan egin duen guztia Jainkoaren erregistroan, Bere oroimenean gertatzen da grabatua eta etorkizunean berpiztu egingo gara (Juan 5: 28). Hildakoentzat loalditik esnatzea bezala izango da.

- Eta non?

- Lurrean. Gizakia lurrean bizitzeko egina dago (37:29 salmoa). Orain gizakiak gobernatzen du Lurra. Berpizten garenean, Jainkoak, Jesusekin eta Santuekin zerutik gobernatuko du guztia. Beraiena gobernu justu bat izango da, paketsua, perfektua...(Errebelazioa 21:3,4).

- Betirako?

- Bai, betirako.

- Beldurrik al diozu heriotzari?

- Ez, heriotzari ez zaio beldurrik izan behar. Lehen esan bezala, heriotza loaldia bezalakoa da.

EMILIANO SIERRA

"Nik bizitzan sinisten dut, pertsonengan, aberengan..."



duzu?

- Heriotzarekin bizitza amaitzen da. Hiltzen garenean, gorputza birrindu egiten da, usteldu eta hor amaitzen da dena.

- Eta ezerezak ez al dizu beldurrik ematen?

- Errezelo piskat ematen dit, bai. Beharbada gizartean heriotzak duen esanahiarengatik, gauza txarra bezala hartzen da eta horrek errezeloa sortzen dit.

- Joaten al zara hiletetara?

- Hil dena senitartekoa bada eta bere nahia ni ere hiletan egotea denean ahalegintzen naiz. Nire

kasuan ez didate hiletarik egingo. Odol eta organu emailea naiz eta hiltzen naizenean aprobeitza daitekeen guztia eman nahi dut. Hortik aurrera, posible bada erretzea nahi nuke.

- Fededunek abantailaren bat dutela uste al duzu?

- Beharbada, heriotza eta gero beste bizitza bat dagoela sinesteak nolabaiteko itxaropena ematen du. Nik erlijio guztiak errespetatzen ditut, bakoitzaren fedea errespetatzen dut baina nik, nigan sinesten dut, nire familiakoengan, bizitzan sinesten dut.

Zer dago heriotza eta gero?



PAQUITA SANCHEZ
46 urte, etxekoandrea

Ezer ez, nik uste dut ez dagoela ezer. Beldurra bai, baina ostantzean... Zerbait egongo balitz, norbait etorriko litzateke zer eta nolakoa den esatera.



FLORENTINO SORASU
80 urte, jubilatua

Nik ez dakat ezer egongo dan esperantzarik, nahi bai egotia eta horretxen ilusiukin bizi gera. Sinismena badakat baina dudia dakat ze inork ez du jun nahi.



CONCHI MAZA
36 urte, etxekoandrea

Erreenkarnazioan ez dut sinesten baina zerbait dagoela bai, arimak bizirik jarraitzen duela. Heriotzak baino zahartzaroak ematen dit beldurra, karga bat izateak.



MANUEL RODRIGUEZ
60 urte, jubilatua

Hori jakin nahi nuke nik ere! Ez dut uste heriotzarekin dena amaitzen denik. Elizan irakatsi digutenagatik, zerbait geratzen dela uste dut.



ALFONSA ROMAN
66 urte, etxekoandrea

Ez dakit zer den dagoen hori bai zerbait dagoela sinisten dut. Fededuna naiz. Ez dakit arima den edo izpiritua, baina bizitza ez da heriotzarekin amaitzen.



ANDONI RODRIGUEZ
18 urte, langabetua

Ez dut ezertan sinesten. Heriotzarekin amaitzen da dena, jaio, bizi eta hil. Batzuetan heriotzak beldurra ematen dit bizitzeak pena merezi duelako.

**ASESORIA
COOP**

AHOLKULARITZA

- KONTABILITATEA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- LAN AHOLKULARITZA
- ALLIANZ ERCOS ASEGURUAK
- MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAK

San Bartolome 1. Tel:74 26 74/02 34 Fax:74 21 29 ELGOIBAR

okindegia eta gozotegia



San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35
ELGOIBAR



872 nitxo berri eraikitzeko asmoa du Udalak Olasoko Kanposantuan

Udalak Olasoko Kanposantua egokitu eta handitzeko proiektu bat dauka esku artean. Domusantu egunean, obrak egin eta gero Kanposantua nola geratuko den erakusten zuen maketa ikusteko aukera izan zuten Kanposantura urreratu ziren herritar guztiek. Guztira 872 nitxo berri erakiko dira.

Nitxoak eraikitzeko kontzepzioa erabat modernoa da. Lurrazpian eraikiko dira, lau nitxo bata bestearen gainean kokatuak. Lurrazpiko gela bat izango da, sartzeko ate bat izango duena, pasilo bat, eta bertan erresponsoa errezatzeko aukera emango duena. Gela bat baino gehiago eraikiko dira, bakoitzak bere ate indibiduala izango duelarik. Hortaz, terreno anpliazioa egin

berri da Kanposantuan, Olasoko baserri alderantz, zuzen. ren giz-tatze emari gauez ber-egiteko Guzti hau azpian egongo da, lurrazpian. Kanposantuan ikusiko den gauza bakarra beraz, azera bat izango da eta alboetara, nitxo ilara bakoitzari dagozkion lapidak.

Konponketa zaila

Esperientzia hau Ondarroan burutzen ari dira eta Guillermo Garate alkatearen ustetan, "gure Kanposanturako ere irtenbide egokiena iruditu zaigu". Izan ere, Kanposantuko



■ ■ Hauxe da kanposantuaren maketa. Eskuinean nitxo berriak.

ni-txoen egoera nahiko kaxkarra da, eta berauek berritzea oso konplexua da duten kokapenagatik. "Akzesoa zaila dute, grua handi bat beharko litzateke hara heltzeko, eta konponketa oso garesti eta konplikatu dauka". Behin nitxo zaharrak hustuta, zelai gisa erabiliko litzateke zona hori. Behe aldeko nitxoek lekua zertarako erabiliko den ziur esaterik ez badago ere, panteoi berriak eraikitzea izan daiteke aukeratariko bat.

Hilobi familiarrak

Udalaren asmoa familia bakoitzak lau nitxo erostea litzateke, hau da, nitxo ilara bat, panteoi moduan. Hartara, Kanposantuko lapidan jarriko liratekeen lau izenak familia berekoak izango lirateke. Dena den, banaka erosteko aukera ere badago. Nitxoek konzesioa 99 urterako da. Ordainketa moduari dagokionean, bi zatitan ordaintzerik egongo da eta Caja Laboral aurrezki kutxan kreditu pertsonala eskatu ahal izango da.

Obrak hasi aurretik, zenbat jende dagoen nitxoak erosteko prest ikusi nahi du Udalak. Hortaz, izenemate orri batzuk kaleratu dira,


NITXOEN PREZIOAK:

- 4 hilobi 600.000 pta.
- 8 hilobi 1.200.000 pta.

ORDAINKETA MODUA

- Erretserba konpromezua 200.000 pta.
- Hilobia ematerakoan 400.000 pta.

Udaletxean bertan eskura daitezkeenak. Dena den, hil honetan bertan bileran informatibo bat eginge daiteke asmoa dauka Udalak herritarrei



■ Earen Udaletxearen gestioaren balantzea

Hiru hilabeteko agintealdiaren balantzea egin zuten asteartean EAko zinegotziek. PNVrekin adostutako programarik ez duten arren, Gobernu Batzordeko kide direnez, bertan jarrera kritikoa izango dutela azaldu zuen Ales Arrietak, "PNVk Gobernukide bezala tratatzen ez gaituen arren". Hirigintza eta Ongizate Sailen martxarekin ados agertu ziren EAkideak, "azken honetan teknikari zein zinegotzien jarrera positiboa dela iruditzen zaigu".

Kontratazioetan irregulartasunen gaia oraindik ere hobetu beharra dagoen iritzikoak dira, "zerbait hobetu da hala ere". Aurretik zegokion batzordetik pasa gabe Hazienda Batzordean ordainketak zuzenean onartu izan direla kritikatu zuten. Gaizkien funtzionatzen duen batzordea kultura da EAren iritziz, "aurreko agintaldiaren heredentziari buelta eman ezinik dabilta". Herriko Antzokiaren gestioa Ongarri ematearen aldekoak ziren arren, "Gobernu Batzordean PNVk eta PSOEek aurkako botua eman zuten". Musika Fundazioari buruz, "34 milioiko aurrekontua duen erakunde horren segimendua" egin beharra dagoela adierazi zuten eta PNVk ez diola euskarari inolako garrantzirik ematen gaineratu. "Euskara Batzordean onartzen diren puntuak ez dira gero Gobernu Batzordera heltzen". Edozein kezka argitzeko, ostegunetan, arratsaldeko 7,30etan San Rokeko egitzan egongo dira EAko zinegotziak.

■ Mus Txapelketa

EGIN egunkariak urtero antolatzen duen Euskal Herriko Mus Txapelketa dagokion Elgoibarko kanporaketa, bihar, larunbata, hilak 4, izango da Kimetz elkartearen arratsaldeko 4etan. Elgoibarko irabazleek hilaren 26an izango den bailarako kanporaketan jokatuko dute.

Hilaren 9an ekingo dio Guraso Eskolak ikasturte berriari

Udal Ongizate Sailak antolatzen duen Guraso Eskolan osatu diren hiru taldeak datorren asteartean, hilak 7, emango diote hasiera 95/96 ikasturteari. Guztira OHOk hiru ikastetxeetako 55 guraso daude aurtentzen.

HEZITZEN elkarte-ko gizarte hezitzaileek adierazi digutenez, "iaz baino jende gutxiago dago aurtentzen, baina oraindik norbaitek interesa balu, izena emateko aukera dauka". Bi talde hamabostean behin, asteartean, elkartuko dira Kultur Etxean eta hirugarren taldea, hilean behin. Lehendabizi landuko duten gaia psikologia ebolutiboa izango da. Gaiak teoriarik landu ondoren, praktikara eramaten dituzte.

Iaz HEZITZENeko teknikariak



egindako inkestak baztertze sozialaren fenomenoaren inguruan lan egin beharra zegoela azaldu zuen. Ikasle asko sozialki baztertuak sentitzen zirela zioen inkestak. "Hortaz, ikastetxeetako guraso, irakasle eta guraso elkarteekin sentsibilizazio kanpaina hasi nahi dugu zentzu honekin". Honez gain, aisialdiko taldeak ere Guraso Eskolaren dinamikara hurbildu nahi dituzte, elkarren artean lan egin eta egitasmo berriak bultzatzeko.



San Migeleko ermita eraiki zutenetik 150 urte bete ziren atzo, azaroak 2, osteguna. 1845. urteko azaroaren 2an kotsagratu zen ermita, Berdeskundeko gurutzaren alboan. Granadako dukeak emandako 50 oin luzerako eta 36 oin zabalerako lur sailean eraki zuten sanmigeldarrek ermita. Fundatzaileen artean 38 auzotarren izen-abizenak agertzen dira 150. urteurrena dela-eta kaleratu zuten liburuskari. 1992an, Murkaikupe frontoia estaltzearekin batera, ermita konpondu zuten auzotarrek.



Elektratresnak birziklatzeko aukera

Deba Beheko Mankomunitatea telebista, ordenagailuak, irratiak, bideoak, aspiragailuak, telefonoak, HI-FI ekipoak eta antzerako tresnak, "linea marron" deitutakoak, bestelako tresnen artetik bereizten dihardu pasa den urriaren 16tik. Objeto Handien Bilketa Zerbitzuan jasotzen diren artikuluak Urruzunoko zabor-tegira eramaten dira eta dagoeneko 9 telebista, 3 ordenagailu eta autoko irrati eta irrati portatil bana erretiratu dituzte. Modu esperimentalean egiten ari diren selekzio prozesu honek

urte bukaerara arte iraungo du. Aurrera begira proiektua martxan jartzeko asmoa du Mankomunitateak, baina aurretik Ingurugiro Saila Bilbon burutzen ari den esperientzian parte hartuko du. Indumental Recycling izeneko enpresa eta beste erakunde pribatu batzuk dira Bilbon elektratresnak birziklatzen ari direnak. Objeto hauen birziklaiaren zenbatekoa, biltzen den objektu kopurua eta bestelako informazioa eskuratze-ko aukera emango dio Mankomunitateari Bilboko ekimenak.



Gazte Asanbladak pasa den 25ean egin zuen zozketaren sari banaketa ekitaldian ateratako argazkia da honakoa. Arkaitz Irureta gaztearena da 0900 zenbakia, saritutako zenbakia, eta beraz, mendiko materilez osatutako oparia berarentzat izan da.

■ HBren bilera

Datorren asteartean, hilak 7, Oldartzen txostenaren emendakinei buruzko bilera egingo da Kimetz elkartearen arratsaldeko 8etan. HBk dei egiten die interesatuei bilerara ager daitezen.

■ HBri erantzun dio alkateak

Pasa den ostiraleko plenoan HBkoen asmoa "botaziora ez heltzea eta plenoa apurtzea" izan zen Guillermo Garate alkatearen iritziz. Udaltzainek izan zuten jarrera "egokia" eta "eskertzekoa" dela gaineratu zuen Garatek. "HBko Pello Mendizabalek Deba ibaiaren saneamendu plana sekuestratu egin dugula esan zuen plenoan, 'sekuestratzaile eta mafiosoak' ginela esanez. Hitz horiek aztertu eta ekintza judizialak bideratzeko asmoa dugu". Haziendako burua den Isaac Loiolak Saneamendu planari buruz zuen informazioa "orokorra eta depuradoraren finantzamenduari buruzkoa bakarrik izateaz gain, kontaktu baten bidez" lortutakoa zela adierazi zuen. "Patzuergoak ez du plan hori bidali, beraz, ez da posible guk sekuestratua edukitzea. Gainera guk geneuzkan datuak irailaren 27ko hazienda batzordean eman zituen Isaac Loiolak eta HBko Pello Mendizabal ez zen batzorde hartara agertu". Ordenantzak onartu ziren urriaren 4ko plenoan ere eman zuten HBk erreklamatzeko duen informazioa, "baina orduan HBkoek plenotik alde egin zuten, informazioa entzuteko aukerarik izan gabe". Patzuergoaren planean depuradoraren leku aldaketa aurreikusten da, beraz, "kokalekua, finantzamendua eta zenbat metro hartuko dituen nork erabaki behar duen da orain argitu beharrekoa" adierazi zuen Guillermo Garatek. "Patzuergoaren planaren arabera, errekaren mozketari esker eskuratzen genuen lur industrialaren zati handi bat galdu egiten da eta hori negoziatu egin behar da".

Thomas Diedrich:

"Euskara ikasteari beharrezkoa deritzot"

Alemaniarra da Thomas Diedrich. Dinamarcatik ordubetera dagoen Alemaniako iparraldeko herri batekoa. Bere hitzetan, iparraldea da, hemen bezala, Alemanian ere alderdirik politena. Dena den, emaztea Donostiakoa izaki, bertan bizi

da. Baina gure artera ekarri badugu, Elgoibarko IMHn egiten duen lanagatik da. Bertan alemaneko irakasle eta itzultzailea da. Izan ere, Germaniar Filologiako ikasketak burutuak ditu eta itzulpengintzako diplomatura ere egina du.

- Nola iritsi zinen Elgoibarrera?

- Hona iritsi aurretik IMHko gerentea den Jose Rejo ezagutzen nuen eta berak proposatu zidan hemen Hizkuntza Institutu bat montatzea eta jadanik lau urte daramatzat Elgoibarren.

- Zergatik alemaneko irakaslea eta ez beste lanbide bat?

- Hasteko, esan beharra daukat, irakasle lanean ezezik, itzulpengintzan ere aritzen naizela. Izan ere, nire ikasketak horretara bideratuta daude, gainera gustura nago lan honekin.

- Gaztelaniaz ongi moldatzen zara, eta euskaraz?

- Orain gaztelaniaz ongi hitzegiten dudan arren, etorri nintzanean ez nekien tutik ere. Hona, jendeak ingelesa jakingo zuen ustearekin etorri nintzen, baina usteak ustela gertatu eta Salamancara joan nintzen gaztelania ikastera.

Egun, euskara ikasten ari naiz baina horri denbora asko eskaini behar zaio eta nahiko zaila zait. Gainera, euskara ikasteari beharrezkoa deritzot. Nahiz eta Donostian asko



Euskal Herria: Grün, wundervoll, einzigartig (Berdea, zoragarria, bakarra)"

ez hitzegin, nire lana dela medio herrietan zehar ibili ohi naiz eta itzulpengintzarako ere baliagarri zait.

- Nolakoa da zure hemengo bizitza Alemaniakoarekin alderatuz?

- Hemen oso gustura nagoen arren, hango gauden beharra sentitzen dut eta alderantziz han nagoen hemengoena. Dena den, toki guztietan iparraldea izan ohi da alderdirik onena. Baina hemengo zein hango burugorriak berdintsuak direla irudit-

zen zait. Beraz, gauza txikiak izan ezik ez dut ezberdintasun handiegirik aurki-tzen, batipat, jende aldetik. Horrek argitzen du Euskal Herrian oso lagun onak izatearen zergatia.

- Hona etorri aurretik ezagutzen al zenuen Euskal Herria?

- Ez. Espainiako hegoaldea ezagutzen nuen soilik: flamenkoa, zezenak eta ardoa, alegia, aleman gehienek bezala. Duela zortzi urte etorri nintzen hona, baina Elgoibarren

lau urte daramatzat eta uste dut hemen jarraituko dudala jubilaziora arte. Edo agian... Elgoibartar denek alemaniera eta nik euskara ikasi arte.

- Zer kalitate behar dira hizkuntza bat irakasteko? eta ikasteko?

- Klase on bat egitea ez da horren zaila baina jendearen interes urria edo gogorik eza medio, batzuetan irakasle paperaz gain animatzailearena ere bete behar da. Nire helburua ez da hizkuntzaren arauak zehatz-mehatz irakastea, ikasleek oinarriko ezagutza bat lor dezaten besterik ez dut nahi.

Ikasteko berriz, pazientzia, konstantzia eta ilusioa beharrezkoak dira.


- Defini ezazu Euskal Herria esaldi batekin.

- Ez dago esaldi baten beharrik, hiru hitzekin nahikoa dela uste dut: GRÜN, WUNDERVOLL, EINZIGARTIG (Berdea, zoragarria, bakarra).

- Anekdotarik?

- Nahiz eta gaztelaniaz ongi hitzegin, nire azentua oso nabarmena da eta oraindik ere gertatzen zait tabernetan bi gorri eskatu eta Coca-Cola ateratzen didatela.

IRATI AGIRREAZALDEGI

**FERISALTSAN**

Majo joan zen urriko feria



Eguerdiko 12ak aldera urreratu ginen lehen aldiz Plaza Txikira. Eta ez zegoen inor, ez jenderik, ez ganadurik... Ezer. Bai arrarua. Eguraldia epel-epela, giro ezin hobea kalera jaitsi eta bueltatxo bat emateko. Tira, beranduago itzultzekotan geratu ginen. 1ak aldera, berriz, ohi den bezala aurkitu genuen feria, ganadua erruz eta jende aldetik ere majo.

Ganadutan genero ona zebilen, astorik ez zen falta, txahalak, makinaria aldetik bazegoen non aukeraturik... Jakiterik izan ez genuen arren, ziur gaude urriko ferian izan zela salmentarik. Jendea behintzat gustura ikusten zen, bai erosle itxura zutenak bai eta saltzaileak ere.

Era batera edo bestera, poliki-poliki urte bukaera hurbiltzen dagoela eta, batek baino gehiagok izango ditu jarrita begiak Gabon Zaharreko ferian.



HAGINA izeneko nekazal aldizkariaren azken alea kaleratu berri da. Nekazal munduari buruzko informazio puntuala dakarren aldizkari honek urtean lau zenbaki kaleratzen ditu, neguan, udaberrian, udan eta udazkenean. Azken zenbakia, udazkenari dagokiona, 500 pta.n eskura daiteke 73 30 22 zenbakira dei eginez.

Zein iritzi duzu nekazal turismoari bu-

Emakumea eta baserria

Euskal Herriko baserrietan emakumeak betidanik garrantzi handia izan du. Azken urteotan eta gure bailaran, hau da, industriak garapen handia izan duen gure bailaran, are gehiago. Baserrri askotan, senarrak industriatik soldata bat eramaten du etxera eta baserriko eginbeharretaz emaztea arduratzen da.

Dedikazio osoa duten baserrien artean, diru iturri berriak sartu nahian, batzuk nekazalturismoa garatu dute. Baserrri hauetan, gizonak baserriko lanak eramaten ditu eta emazteak turismoarekin zerikusia duten lanak egiten ditu.

Deba Beheko bailaran, batez ere Izarraitz programaren barruan, 30 emakume inguruk egiten du lan nekazalturismoaren inguruan eta epe motzera beste 20 emakume gehi daitezke.

Hau dela eta, DEBEMEN elkarteak Europako beste sei bazkiderekin elkar-tu eta heziketa plan bat prestatu nahi du nekazalturismoa lan egiten duten emakumeentzat. Plangintza hau prestatu ahal izateko Europako "Fondo Social Europeo" delakoarengandik 20 milioi jasoko ditu datozen hiru urteetan.



Asier Albizu
DEBEMENeko gerentea



Pakita Askasibar, 67 urte
Etxeberrimetal (Arriaga)

Gu jubilauta bizi gera eta ez jaku burutik pasatu holakorik ipintzia. Gainera, gabeko ordu batian etortzen jatzu jendia kantuan. Bizitzeko adina badakagu, ez dogu holakorik bihar.

Maria Ormaetxea, 79 urte
Aitzbizkar (San Roke)

Horretarako etxe haundixa bihar da. Markinan badaoz eta nahi dabanak hamabost egun haizia hartzera jutia, paisajiak ikustia eta mantzania hartzia, aukeria badaka. Ondo daoz.

Elisabeth Aranbarri, 59



urte
Lizundia Txabola (Arriaga)

Oso poliki ikusten dia horiek. Baserrixan ere zeozer in bihar da eta irtenbidia izatiaz gain bide batez kanpotarrak etortzeko



aukeria danez, ondo dao.

Karmen Mujika, 57 urte
Etxetxo (Bergara)

Entzun izan dot baina ez dakit seguru zer dan. Sekula ez dou interesik euki gurian ipintzeko eta gainera laguntza gehixegi daola ez dot pentsatzen.



Luzia Telleria, 43 urte
Basoeta (San Lorentzo)

Neri gehixo gustatzen jata baserriko lana. Gipuzkoako kupua beteta dauala pentsatzen dot eta gurian ez dao ez tokirik ez jenterik holakorik ipintzeko.



Aranbeltz

Hirurehun urte inguru dira Aranbeltz baserria eraiki zela. Urruzuno auzoan kokatua dago eta gaur egun bost pertsona bizi dira bertan. Salan, horma nagusian, ilobak marraztutako koadro bat dute zintzilikatua, Aranbeltz baserria da bertan ikus daitekeen irudia. Baserrian jaio, hazi eta kalea ezagutu ondoren, berriz ere baserrira itzuli zen familia hau.

Iose Mari Bastida "Katalotza" baserrian jaio zen. Aranbeltz baserrira ezkondu eta urte batzuetara kalera jaitsi zen, emaztearekin eta bost seme-alabekin. Antonio Bastidak, semeak esan digunez, "nik ez naban kalera bajatzerikan nahi. Negarrak ertetzen zian begixetatik". Halere, kalean bizi behar izan zen makina bat urte. Orain 15 urte ezkondu zenean, langabezian geratu eta, berriz ere, baserrira itzuli zen. "Gu kalian izan ginan bitxartian errenterua egon zian. Gero, haiek ere laga eta goi-txik behera sastrakaz betetzen hasi zan. Gu etorri ginanian, dana garbitxu eta berritxu bihar izan gendun". M. Jesusek esan bezala, "baserri honen beheko aldeak 300 urte dauzka. Goikokak, berriz, bederatzita hilabete".

Bilbotik Aranbeltzera

Antonio pozik dago baserrian, "nahixao dot nik hau kalia baino". Bere emazte Maria Jesus, bilbotarra da, "Arrasatera etorri nitzan lehenengo, Antonio ezagutu, ezkondu eta baserrira bizitzera. Gustura nago. Beti gustatu izan zait hirian bertan baino piskat apartatuta bizitzia". Eta ondo baino hobeto lortzen du Maria Jesusek isolamendu hori, "etxean bertan ere, beheko solairua nere txokoa da. Bakarrik egon nahi dudanean, behera jaitsi eta listo". Antonioren aita, Jose Mari eta Maria Jesusen ama,



Orain 15 urte itzuli eta baserria eraberritu egin zuten.

Maria, baserrian bizi dira. "Aitxa berriz baserrira etorri zanian osasunian asko irabazi zaban. Debilitate haundixakin etorri zan. Oin, pisua hartu dau. Mendiko aire garbixak

on ein diola pentsatzen dot" esan digu Antoniok. Maria Eguren ere gustura dago, "Bilbotik hona etortzea aldaketa haundia da baina bera gustura dago. Ondo tratazen dugu eta jan ere edarto egiten duenez..."

Astoa eta karroarekin lan

Orain urte bete iratxe alabaren eskolako lagunak Aranbeltz baserri- ra joan ziren, "Ikastolatik etorri ziren. Batera eta bestera ibili ziren, astoaren gainean, zelaian bueltaka, behiak nola jeisten diren ikusten...". Iratxe umea da oraindik eta bere bila joan behar izaten dira etengabe, "baserriak hori dauka, lotura handia eta denbora osoan kotxea behar". Jose Mari bere gaztaroz oroitzen da, "guk ez zakagun ez telexorik ez radiorik. Ardirekin eta ikatza eitxen ematen gendun denboria. Gauzak asko aldatu dia!".

Gaur egun Antonio jubilatua dago eta pentsioa dauka. Horri esker eta baserritik atera-tzen dutenarekin, esnea kalean edo Gurelesari salduz eta baratzeko produktuekin ateratzen dute bizi-tza aurrera. Mari Josek aitortu digunez, "molda-tzen gera. Gainera, ez dakagu makinari. Lehen egiten zen bezala aritzen gara, astoa eta karroarekin".

ARANBELTZ

- **AUZOA:** Urruzuno.
- **BIZILAGUNAK:** Jose Mari Bastida, 88 urte; Maria Eguren, 81 urte, Antonio Bastida, 61 urte, Maria Jesus Puertas, 49 urte eta Iratxe Bastida, 11 urte.
- **LUR HEDADURA:** 8-10 hektarea.
- **ANIMALIAK:** 8 behi esnetarako, idiskoa, oilaskoak, astoa...
- **PRODUKTUA:** Baratza.

EZKONTZA AGENTZIA BIDEZ

Maria Jesus eta Antonio agentzia baten bidez ezagutu ziren orain hamabost urte. Fletxazoa berehalakoa izan zen, "Antoniok indio batek bezala hitzegiten zuen erderaz eta oso guapoa zen, asko gustatu zitzaidan. Ni, berriz, orain baino 15 kilo gutxiagorekin neska polita nintzen. Eta osasun-tsua". Denborarik bat ere galdu gabe ezkondu ziren ezagutu eta lau hilabetera. Gaur egun, 11 urteko neskatila polit bat dute, Iratxe.

Jose Zubizarreta "Armaitxa":

"Bertsolarixak danetik jakin bihar dau"

San Lorentzo bailaran kokatzen den Armaitxa baserrian jaio eta bertan bizi da, oraindik ere, Jose Zubizarreta. Bere gazte denboran ez zuen aukerarik izan bertsolaritzaren inguruko eskolarik jasotzeko, "orduak euskera eixia prohibiduta zauan". Halere, etxean, lagunartean edo beste hainbat tokitan jardun izan du eta berezko senak irakatsi dio noizean behin aritzeko moduko bertsolari izaten. 71 urte bete zituen urriaren 26an.

- Nola sortu zitzaizun afizioa?

- Nik berezkua dakat. Ez naiz sekula ibili inungo eskolan eta etxata tokau nere inguruko inor bertsotan ibili izana. Gero, gerria etorri zan eta han ere ezin bertsotan ein, euskera prohibiduta zauan... Soldautzara jun nitzanian han ein nitxun bertso batzuk.

- Soldadutzari buruzkoak?

- Bai, bai. Lehen ere lagunen artian ibiltzen nitzan baina soldadutzan bota nitxun lauzpabost bertso onak. Nik ez nakixan zer zan bertsua, zelan jun bihar zan ere ez eta euskeraz ere ondo ez. Nere orduko bertsuak euskeraz izaten zian baina erderaz ere hitz batzuk sartzen nitxun. Tira, jendiak barre itxen zaban behintzat. Oin diferentia da.

- Teknikak horrenbeste garrantzi al du?

- Ya lo creo! Bueno, norberak berezkua ere euki bihar dau, ez pentsatu. Zuk teknika asko eukitza ere, asko irakurri arren, berezkua ez badakazu alper-alperrik. Ni piskat serixuao 36 urtekin hasi nitzan. Orduantxe hasi zan egoeria kanbixatzen eta neu ere irakurtzen hasi nitzan bertsolaritzari buruz. Deitzen hasi zian batera eta bestera ju-

teko eta, tira, moldau nitzan.

- Txapelketak zer Jose?

- Neretzat etxataz gusatzen. Nahixao dot 40 bertso kantatzia taberna baten bakar bat txapelketan baino. Txapelketan gizona aldatu eitzen da eta bertsua ez da natural urtetzen. Nerbixuak, ten-tsiua... Bertsua ondo botatzeko trankil egon biharra dakat nik.

- Tablaio gainean nori begiraten diozu?

- Inor ezi, publikuari ez behintzat. Hormara edo gora edo... Kontzentraun ein bihar zera eta horretarako norberak barrura begiratu bihar dau. Buru barrura.

- Entrenamentuen beharrik al du bertsolariak?

- Bbeste edozeinek bezela. Plaza askotan ibilixta

"Nahixao dot 40 bertso kantatzia taberna baten bakar bat txapelketan baino"

askoz praktika gehixo dakazu eta bertsua erretzo urtetzen jatzu. Neretzat, bertsolari ona izateko, lehenengo Jainkuak emandako doai bat bihar da, berezkua izatia eta oso inportantia da, baitxa ere, asko jakitzia. Edozein gairi buruz asko jakitzia. Saio batian ipintzen



dizuen edozein gairen aurrrian ondo erantzun bihar dozu, derrepentian gainera eta bertso on bat bapatian botatzeko, gai horri buruz zenbat eta gehixo jakin, orduan eta hobe. Informauta egon bihar da bertsolarixa.

- Gai gaiztorik ez al dago?

- Gerra bati buruz galdetzen badizue edo Biblia-ko edozerri buruz, bixak ja-

izan behar du.

- Horixe baietz, kritikua eta umore ona eukitza oso inportantia da. Bertsolarixak saltsia ipini bihar dau eta entzuliei barria atera bihar diue, edo malkua, segun zein dan plazia.

- Adibidez?

- Ilobaren bat ezkondu izan danian altaretik bertsuak kantatu izan diuet eta oso sentimentalak izan zian. Emozio haundikuak baina alaixak.

- Eta emaztea, bertsotan konkistatu al zenuen?

- Beti laguntzen dau, gainera bertsozalia izan da eta... Neska gazte eta politxei bertsuekin lora politxak botatzen jakue.

- Eta semeak?

- Haiek ere ibiltzen dia. Gurian, San Lorentzuetan edo Gabon Gabian hiru semiak eta elkartzen geranian, bertso saio ederra eitzen dou. Giro politxa sortzen da.

kitzia inportantia da. Gaixa gaiztua da entenditzen ez badozu, ezer ez badakizu.

- Idatzi ere idatzi izan al duzu bertsorik?

- Batzuk bai, baina gehixo izan naiz bapatekua. Frankori eta Gobienuari buruz idatzi izan dixut.

- Bertsolariak kritikoa

Juan Migel Merino

Merino zapatadendakoa



- **Zein egoeratan sentitu izan zara zapata berriak dituen haur bat bezala?** ▶ Nire ezkontza egunean, oso egun zoriontsua izan zen, onena.
- **Zein materialez egina dago zure azala?** ▶ Nahiko hauskorra, ahula naizela esango nuke.
- **Pauso handiak banan-banan ala asko eta bizkor?**
 - ▶ Nahiago dut poliki baina ziur joatea.
- **Tokatu izan al zaizu saltaka ateratzeko bezalako egoerarik?**
 - ▶ Ez, zorionez.
- **Zer nahiago duzu, kanperak ala bota militarrek?**
 - ▶ Ez bata ez eta bestea ere, zapata normalak gustatzen zaizkit.
- **Zer egiten zaizu “kailo” bat bezain mingarria?**
 - ▶ Mingarria izan daiteke emazteaz banatzea, adibidez.
- **Bizitzan zerk behar du “kalzadore”a?** ▶ Mementu honetan lehenbizi biolentzia desagertzea eta gero langabezia.
- **Nori emango zenioke “takonazo” bat?** ▶ Gobernuari, dudarik gabe.
- **Inoiz zapaldu al zaituzte?** ▶ Bai, enpresariak.
- **Oinetakoetan ikusi al daiteke pertsonaren izaera?**
 - ▶ Bai, pertsonak bere izaeraren arabarako zapatak jutzen ditu.
- **Eta zuk, oinetara begiratzen al duzu?** ▶ Bai, askotan.
- **Tokatu izan al zaizu inoiz “botin”en bat?** ▶ Txikiak bai, astero jokatzeko baitut Primitiba, baina garrantzirik gabekoak.
- **Gerrikoa estutu beharrik izan al duzu?**
 - ▶ Denda ireki nuenetik bai.
- **Sekula jantziko ez zenukeen oinetakoa?** ▶ Kanperak eta militarrek.
- **Oinetakoentzako kolore bat?**
 - ▶ Gorria gustatzen zait asko eta marroia bat ere ez.
- **Jazterakoan, konjuntora joatea atsegin al duzu?**
 - ▶ Bai, zapatek garrantzi handia dute izakeran eta begiratu beharra dago.
- **Zure dendatik zer eramango zenuke irla batera?**
 - ▶ Ibiltzeko oinetako eroso batzuk eta etxeko zapatilak. Ez zait oinutsik ibiltzea gustatzen.
- **Amets bat?** ▶ Seme bat izatea.
- **Idolorik ba al duzu?** ▶ Umetan Arkonada zen, orain ez daukat.
- **Atzera begiratzuz datorkizun mementuren bat?**
 - ▶ Futbito partiduak, lehen jokatzeko nuen eta oso oroitzapen ona daukat.

HAUSNARKETA PERTSONALA

DOINUA:

Aita jainkuak egin banindu

Irratiaz gain telebista bi etxe denetan loratu bideo eta tokadiskoak besteei die jarraitu ordenadore eta modem-a lortzeko gara saiatu kontsumitzaile handiak gara hori ezin da ukatu.

Usteak beti erdia ustel esaera da ezagun hainbat gailurren eragin txarra tinko aitortu dezagun froga nuklear eta antenaz aspaldian gara jardun teknologia ekologiaz inoiz ez da izan lagun.



JOSU GUENETXEA



Hirigintza proiektuak

Jarraian, Udalak hirigintza atalean egin dituen hainbat berrikuntzen berri emango dugu. Hona hemen orain arte egindakoak eta azaroen zehar egingo diren hainbat egitasmo:

▲ **Sigmako auzoan, iturri berria** eraiki da frontoi inguruan. Iturria ezezik, frontoia ere berritu da: frontisa margotu, atzeko aldeko lurra konpondu... Auzoa errekuperatzeko ahalegina egiten ari da Udala eta aurrera begira, Aitzbizkarrerako bidean asfaltoa bota eta ganoraz argizatatzeko asmoa du.

▲ Hil honetan eraikiko da Melitoneko Hiltegi Zaharra zegoen lekuan **autoak garbitzeko leku publikoa**. Lau-sei auto garbitzeko lekua egongo da. Ura Udalaren kontu izango da, interruptore txiki bati eman beharko zaiolarik ur-jarioa nahi den bakoitzean. Garbitzeko erabiliko den ura Deba ibaira joango denez, PH neutroko xaboiak erabiltzea eskatzen du Udalak.

▲ **Erretxindi baseritik Mintxetarako bidean falta den zatian ere asfaltoa** botako da hil honetan. Bidea ahal den guztia zabalduko dute, alboetako sasiak kenduz. Aurrera begira Kiroldegia eta Mintxeta arteko bidea ere konpontzeko asmoa du Udalak, auto zein oinezkoentzako bidea eginez.

▲ “Promotora Elgoibar” izeneko enpresari **IMH parean 36 etxebizitzako blokea eraikitzeko baimena** eman dio Udalak IMH eta Arregitorreko lurren arteko mugari buruzko auzia zela-eta zeuden zalantzak argitu eta gero. Laster ekingo zaio etxebizitzak eraikitzeari.

▲ Hil honetan hasiko dira **Txankakuako gurutzebidea eta errepide azpiko pasabidea** handitzeko lanak. Zubi-Ondoren egoitza zegoen etxea botako da lehenik eta ondoren, herreria zaharra. Moyua S.A. enpresa da obrak egingo dituen eta 6-8 hilabeteko epea eman zaio lanak amaitzeko. Pasabidea handitzeko errepidea moztu egingo denez, trafikoa probisionalki desbideratu egingo da. Komentu zaharrean eraikitzen ari diren etxeren aurreko plazak “Jausoro Plaza” izena izango du eta atzeko kalea “Santa Klara kalea”. Lanak amaitzen direnean Zubi-Ondo elkartearantzako edifizio berria eraikiko da, Santa Klarako etxe berriak eta autobus geltokiaren artean dagoen terrenoan.

Istiluak izan ziren plenoan

Joan den ostiralean izan zen pleno berezian istiluak izan ziren Lerun Txiki-Mortterika proiektuaren puntuaren inguruan. Izan ere, Gazte Asanbladak uztailen hainbat alegazio aurkeztu zituen aipatu proiektuaren aurka, hala nola, ingurugiroan izan dezakeen eragina edo Altzolari ekar diezaiokkeen uholde arriskua. Gazte Asanblada pleno aretoan izan zen eta pankarta bat ireki zuen “Deba ibaia osoa eta garbia” esaten zuena. Udaltzainak agertu ziren

atzera botaz. Partikular batek egin zuen alegazioari baietza eman zitzaion eta horren bitartez, lurrak Udalak espropiatu beharrean, jabeen eta Udalaren arteko hitzarmen baten bidez egingo da tratua.

Bestalde, administrari laguntzaile baten posturako oinarriak onartu ziren. HBk eta



■ ■ Lerun Txiki-Mortterika puntuaren ingurua n izan ziren istiluak plenoan.

kartela kentzeko asmoz baina hauen eta Gazte Asanbladaren artean tirabirak izan ziren, guztiek lurrean amaitu zutelarik. HBk PNV “informazio ezkutatzaile”tzat salatu zuen, “besteak beste, depuradorari buruzko proiektua ezkatzen ari zarete, inork ez baitaki ezer”.

Halere, plenoak aurrera egin zuen eta proiektuaren zatikako plana onartu egin zen Gazte Asanbladaren alegazioa

PPk mozioak aurkeztu zituzten. Lehenengok, “Espainiako biztanlea dioen puntuan, Europar Batasuneko edozein Estatuko partaide jartzea” eskatu zuten bai eta E puntua aldatzea ere, “orain jarritakoaren arabera, insumitu bat ezin baita postura aurkeztu”. PPK, “euskara puntuagarria izatea eskatu zuen, ez eliminagarria”. Alegazioak atzera bota ziren eta oinarriak zeudenetan onartu.

Madalako ermita

- Madalako plazan, San Lazaro egoitzari itsatsia dago ermita.
- XVI. mendean Pietate Andra Mari eliza (hementxe eraiki zen San Frantzisko komentua 1516an) eraiki zen arte, Madalako ermita zen herrian zegoen bakarra. Izan ere, garai hartan parrokia Olason zegoen, herritik dexente urrun geratzen zena.
- Ezenarro apaizak bi arrazoi aipatzen ditu garai hartako elgoibartarrak Madalako ermitako elizkizunetara joateko: alde batetik, Olaso parrokiaren urruntasuna eta, bestetik, erromes bideko ospital elizatzooan zegoen santuen kultoa. Era berean, Madalan gordetzen ziren Eukaristia eta gaixoen Untzioa, eta ezkontza asko ospatzen omen ziren. Kultuari dagokionean, XVI. mendean Santiago bideko ospitaleetan bezala, lau irudi esanguratsu zeuden aldare eta guzti: Andra Mari Magdalena, San Sebastian, San Anton eta Santa Katalina.
- Arkitekturaren inguruan Madalako ermitak hamaika

aldaketa jasan ditu. XVIII. mendeko azken aldera, hormak eraikitzeke Olasoko harriak erabili zituzten parrokia zaharra kanposantu bilakatu baitzen.

- Neurriari dagokionean, mende hasierakoa eta gaur egun ezagutzen duguna antzerakoak dira. Azken berritze lanen proiektua Luis Ulazia Etxeberria arkitekto elgoibartarrak egin zituen.

- Gaur egungo ermitari atzeko zati bat falta zaio, ospitale zaharrari kendutakoa hain zuzen. Kororik ere ez du garai batean bezala, bertara barraskilo eskailera estu batetik igotzen zelarik.

PELLO ARRIETA



Francisco Araolaza

Praktikantea (1902-1974)



- Tolosan jaioa, 1902ko ekainaren 4an.
- Eskolapioetan hasi eta Comillas-en (Santander), Jesusen lagundian jarraitu zituen ikasketak. Tolosara bueltan, Crespo farmazian jardun zuen lanean. Ondoren, Zaragozako Fakultatean ikasi zuen praktikante.
- 1926an Zaragozatik bueltan Oresa eta Gaztelun aritu zen praktikante. Lan handia egin zuen herri txiki hauen garapena bultzatzeko. Besteak beste, bere ahaleginez iritsi ziren argindarra eta ura herri hauetara.
- Sei urte beranduago Zizurkil eta Adunako praktikante izendatu zuten. Zizurkilen sendagilerik ezean berea zen osasun larrialdi guztien ardura.
- 1954an Elgoibarrera etorri eta Madalako ospitalean zuen lantokia. Ospetsu izan zen zuriak eta ulzerak sendatzeko zuen dohainagatik.
- Dionisia Lahidalgarekin ezkondu zen eta 7 seme-alaba izan zituzten.
- Kantua, musika eta irakurtzea gogoko zuen, euskaraz batez ere.
- 1974ko martxoaren 4an hil zen.



ZERAMIKAK

Erakusketa eta bulegoa:
Antonio Arrillaga, 6-8
behea
83 Postakutxa
Tel. 74 33 44 - 74 06 92
Fax 74 37 11

Biltegia:
Arregitorre, 10 - 14 behea
Tel. 74 20 38 - 74 23 71
20870 - ELGOIBAR
Gipuzkoa

MOTZAK

Judoko lehen jardunaldia

Ibai gimnasiko judokek 15 urtez azpiko Gipuzkoako Txapelketako lehen jardunaldian parte hartu zuten pasa den larunbatean. 65 kilora arteko kategorian Egoitz Morak zilarrezko domina lortu zuen. Zuhaitz Azpiatzuk zilarrezko domina eskuratu zuen 46 kilora arteko mailan. Gainontzeko judokak fin ibili ziren arren, ezin izan zuten dominarik irabazi. Horrela, Xabi González eta Ganix Ostolaza laugarren postuan geratu ziren eta Josu Idiakezek, besoko lesioa zela-eta, bosgarren postuarekin konformatu behar izan zuen.

Txankakua Saskibalo Taldearen zozketa

Txankakua Saskibalo Taldeak 10.000 pta. zozketatuko ditu partiduen atsedendaldietan egingo duten lehiaketa baten bidez. Lehiaketa honetan datza: minutu batean hiru kanasta sartzen dituenak, jaurtiketa libre, hirukoa eta kanpo erditi, 10.000 pta irabaziko ditu. Hirurak sartu ezean, bi kanasta lehen minutu erdian sartuz gero, saria 1.000 pta.koa izango da. Saskibalo Taldeko bazkideen kuota 500 pta.koa da.

Atletismo frogak

Pasa den larunbatean Elgoibar eta Eibarko alebiren arteko atletismo frogetan 125 haurrek hartu zuten parte. Mintxeta Atletismo Taldeak antolatuta altura jauzia, luzera jauzia, 60 m. eta 1.000 m.tako frogak burutu ziren. Aipatzekoa da Ane Etxaniz 1.000 m.tan lehena izan zela, guztien artetik berak egin baitzuen markarik onena.



Aure Gonzalez:

"Takewondoa baino nahiago dut muskulazioa"

■ **Noiztik muskulazioan?** - Duela 5 urte Ibain Takewondoa hasi nintzen eta muskulazio gela zegoenez, ba, azkenean ia gusturago egiten nuen muskulazioa.

■ **Jarraitzen duzu Takewondoa-ekin?** - Bost hilabete nago ezer egin gabe zaintiratu izan nuelako eskuinteko abduktorean baina jarraitzeko asmoa dut, gerriko beltza ateratzeko gutxi falta zait eta.


■ **Zertarako muskulazioa?** - Gorputza lantzeko eta neure buruarekin gustura sentitzeko. Astean lau egunetan joaten naiz Mintxetara, batzuetan bost egunetan ere bai, egunero hiruzpalu ordu. Saio baten ostean giharrek bi eguneko atsedena behar dutela esaten dute baina...

■ **Konpentsatzeko beste kirolik egiten duzu?** - Korrika eta bizikleta piska bat. Aste batean adibidez, muskulua gogor lantzen baditut, hurrengoan pisu gutxiarekin aritzen naiz. Oreka bilatzen dut. Muskulu diferentek landu behar dira. Neuk nere programa propioak egiten ditut, lehenengo koipea erretzeko pisu txikiarekin eta gero bolumena lortzeko pisu handiarekin.

■ **Muskulazioa eta gero zer da ona?**

- Estiramenduak egitea, muskulua gogortuta baldin badaude zaintiratuak etab. sortzen baitira.

■ **Elikadura?**
- Otorduetan jaten



dut, hortik kanpo ezer. Bitaminak hartu izan ditut energia faltagatik.

■ **Kulturismoak erakartzen zaitu?** - Bai eta ez. Kulturistak euren gorputzaren esklabu dira, gimnasioan 8 ordu ematen dituzte egunero. Denbora eta dirua behar da. Gainera kulturistek anabolizante eta aminoazidoak hartzen dituzte eta luzarora gorputzak igarri egiten du.

■ **Gorputzeko zein atal duzu gogokoena?** - Bizeps-ak edo besoak. Eta gutxien, hankak.

■ **Narziso xamarrek omen zarate. Ispiluan begiratzen zara?** - Beti ispiluan begiratzen nagoen fama omen daukat eta nire urtegunean lagunek bi metroko ispilua oparitu zidaten. Hala ere, ispiluak morala ematen du muskuloei nola hobetzen duten ikusten duzulako.

■ **Perfekzioa lor daiteke?** - Bai. Hala ere, denok gara ezberdinak eta gainera, gogor lan egin behar da eta janaria zaindu.

■ **Zenbat pisu jasotzen duzu besoekin?** - Pektoralarekin 100 kilo gehienez, eta hankekin, prentsan etzanda, 205 kilo altxatu izan ditut.

• **Adina: 28**
• **Altuera: 1,86**
• **Pisua: 88 kilo**
• **Gorrotu duzun ariketa bat: abdominalak**

MALAPE

Baserriko haragietan berezia

Harategi Urdaitegia
San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40

Salvador Celaya
ITURGINTZA

BILTEGI ETA BAINUGINTZA
BEROGAILU ELEKTRIKO ETA GASDUNAK
Errosario 22. Tel: 74 04 94 ELGOIBAR

URASANDIKO FUTBITO TXAPELKETA



SPARTAK



JOKALARIAK: Zutik, ezkerretik eskumara: Iban Suarez, Aitor Tamayo, Mitxel Santos eta Ekaitz Lasuen. Makurtuta: Ander Zubia, Jon Rodriguez, Joseba Galarraga eta Iñigo Barrenetxea.

EKIPOKERIAK

- **IZENA:** Spartak de Braga.
- **ZERGATIK IZEN HORI?** Izen arraro bat ipini nahian, aukeran zituzten izenen artean "politena" iruditu zitzaielako. Pragako Spartak taldearen parekoa edo.
- **SORRERA:** 1995ean.
- **AURTENGO ASMOAK:** Liga irabazteko asmoa dute, "eta ezin bada, Kopa, baina zeozer bai".
- **B/B ADINA:** 16/17 urte.
- **LORPENAK:** Oraingo bat ere ez.

GOLAK

● GOLEGILERIK ONENAK:

A TALDEA: I. Saez
(P.S.K.) **4 gol**

B TALDEA: Erroka Castrillejo
(Sanrokotarra) **4 gol**

● GOL GUTXIEN JASO DUTEN ATEZAINAK:

A TALDEA: Boo (PSK) **gol 1**

B TALDEA: (Sanrokotarra) **2 gol**

A Taldea

	PUNTUAK	GOLAK
1. P.S.K.	6	10
2. KING-KONG	4	6
3. LUCKY LUKE	4	3
4. S. PITXOTE	3	1
5. BERROGEI DURO	3	-1
6. ORAIKO DISCO	3	-1
7. KARKIS	3	-2
8. S. KARAPOLA	2	-2
9. PEDRUSCOS	2	-3
10. ATERPE	0	-11

B Taldea

	PUNTUAK	GOLAK
1. SANROKETARRA	6	13
2. ALDAVAS	6	9
3. IKUS OPTIKA	4	6
4. KOSAKOS	4	5
5. S. BRAGA	3	-2
6. ORBELA	2	2
7. ROKE	2	-5
8. REVEL URBI	1	-4
9. UDABERRI	0	-10
10. AMETSA	0	-14

Futbola

Haundi 2 - Juventus 0

Elgoibar 0 - Gure Txokoa 1 (**1. erreg.**)

Lehenkoak 0 - Elgoibar 0 (**Kadeteak**)

Elgoibar 1 - Kostkas 0 (**Infantilak**)

Elgoibar 10 - Aloñamendi 0 (**Neskak**)

Areto Futbola

Cactus 1 - Elgoibar 4 (**1. maila**)

Araba 4 - Elgoibar 6 (**2. maila**)

Saskibaloia

Alde Zaharra 60 - Txankakua S.T. 48

Eskubaloia

Pagoaga Elgoibar 25 - Zarautz 7 (**Kad. neskak**)

Bidasoa 17 - Elgoibar 33 (**Kad. mutilak**)

Elgoibar 29 - Legazpi 14 (**Jubenilak**)

Hondarrabi 20 - Txankakua Elgoibar 27 (**Seniorrak**)

Futbitoa

Revel Urbi 2 - S. Braga 2

Ikus optika 5 - Ametsa 1

Sanrokotarrak 2 - Orbela 1

Kosakos 5 - Roke 2

Aldavas 4 - Uda Berri 2

Pilota Gipuzkoako Txapelketa

Kadeteak

Iraeta/Mujika (Ormaiztegi) 22 eta

Orbea/Gerrikabeitia (Lagunak) 16

Jubenilak

Errarte/Oion (Eskoriatza) 6 eta

Balzola/Loiola (Lagunak) 22

AGENDA

Futbola, Mintxetan

Larunbata, 4

10,00 Urki A - Almen (**Jub.**)

11,45 Eibar Urko - Beasain (**Jub. nazionala**)

13,30 Gazteak - Aldapetarrak (**2. erreg.**)

15,15 Eibartarrak - Antzuola (**Jub.**)

17,00 Eibar - Beti Gazte (**1. erreg.**)

Igandea, 29

10,00 Eibartarrak - Lagunak (**Neskak**)

11,45 C.D. Elgoibar - Tolosa (**Kadeteak**)

13,30 Gazteak - Sorraluze (**2. erreg.**)

15,15 Urki - Mutriku (**2. erreg.**)

17,00 C.D. Elgoibar - Zumaia (**Jub.**)

Areto Futbola, Kiroldegian

Ostirala, 4

22,00 Elgoibar F.S. - C. Extremeño (**2. maila**)

23,00 Elgoibar F.S. - Platinor (**1. maila**)

Saskibaloia, Kiroldegian

Larunbata, 4

19,00 Txankakua S.T. - Legazpi

Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 4

16,00 Elgoibar - Urola (**Kad. mutilak**)

17,30 Txankakua Elgoibar - Bergara (**Sen.**)

Futbitoa, Urasandin

Igandea, 5 (Arbitraia: Aldavas)

10,00 Karkis - Aterpe

11,00 Lucky Luke - Berrogei Duro

Pedruskos - S. Pitxote

12,00 King Kong - Oraiko Disco

P.S.K. - S. Karapola

MOTZAK

18 saio emitituko ditu Zazpikik astero

Trikiti ikastaroa

Olaizaga kirolegeiak 10 orduko iraupena izango duen trikiti ikastaroa antolatu du iaz izan zuen arrakasta ikusita. Hiru ordutegi daude aukeran: astelehenetan 21,30etatik 22,30etara eta ostegunetan 21,00etatik 22,00etara bata, ostiraletan goizeko 10,30etatik 12,30etara bigarrena eta azkenik, larunbatean 10etatik 12etara. Bazkide direnentzako prezioa 2.000 pta.koa da eta bazkide ez direnentzat 3.500 pta.koa. Ikastaroaren hasiera egunak hilaren 13, 17 eta 18 izango dira.

Sevillana ikastaroa

Ibai gimnasioak Sevillana ikastaroak antolatu ditu. Goizez eta arratsaldez izango dira ikastaroak, goizean 10,30etatik 11,30ak arte eta arratsaldean 3etatik 4etara, 4etatik 5etara eta 7,30etatik 8,30etara bitartean. Izenematearen zenbatekoa 3.000 pta.koa da. Berri gehiago jasotzeko 74 07 93 edo 74 27 06 zenbakietara deitu.

Asteazkenean, azaroak 1, ekin zion Zazpiki Irratiak programazio berria emititzeari. 18 saio ezberdin eskainiko ditu. %90 euskaraz dira, musikalak gehienak, 13 hain zuzen.

Dena den, informazioari buruzko programen kopurua gehitu nahiko lukete Zazpikiko arduradunek, "informazioa emateari berebiziko garrantzia eman nahi diogu". Kalitatearen aldeko ahalegina egitearren, ekipoaren funtzionamenduari buruz, gidoiak nola egituratu behar diren eta oinarritzko beste ezagutza batzuk azaltzeko formazio ikastaroa antolatuko dute. Emisio ekipoak huts egiten duenerako ordezko bat eduki nahiko lukete "dirua lortuz gero, noski". Dagoeneko artxiboa osatzen ari dira komunikabideetan agertutako Elgoibarko informazioarekin, kanpoko elkarteek bidalitako aldizkariekin, zenbait disketek bidalitako diska eta argitalpenekin etab. Euskal Herriko irrati librean artean koordinazioa egotea ere funtsezkoa da Zazpikiren arduradunen ustez. "Bilerak egin ditugu irrati librean artean, eta fax-a eta erantzungailua erosi dugu elkarren arteko



■ ■ Zazpiki Elkarteak sortu nahi dute babes legala izateko.


elkartruketa arinagoa izan dadin".

Honez gain, eguneroko emisio orduak finkoak izatea lortu nahi dute aurten, "entzulegoarengan Zazpiki entzuteko ohitura sortzeko". Bultzatu nahi duten beste aspektu bat herriko elkarteei propaganda kuñak doan egiteko aukera eskaintzea da, "elkarrekin beraien ekintza, bilera eta sloganen berri emateko aukera izan dezaten".

Legalizazio bidean

Irrati libreen legalizatzeko modurik ez dutenez, berauek gestionatzeko kultur elkarteak sortzen ari dira irratiaren ekimenez. Ildo honetatik elkarteak sortzekotan dabilta Zazpikikoak, Zazpiki Kultur Elkarteak, "irradiak babes legala izan dezan eta Udaletik diru laguntzak jasotzeko".

DUDARIPE!



Elche-ra joan da komiki lehiaketako lehen saria

Bi urtetik behin Kokoe Elkarteak antolatzen duen IV. Komiki Lehiaketaren irabazlea Elcheko (Alicante) Juan Francisco Del Peral Pineda komikigilea izan da. “La sangre de los Blood” izeneko lanagatik 90.000 pta.ko saria jasoko du 26 urteko gazte honek. Elgoibartarrak bi baino ez dira aurkeztu aurten.

Kalitatezko lanak izan dira lehen hiru sariak irabazi dituztenak. Lehen saria Elchera joan da, 60.000 pta.ko bigarren saria Roberto Martinezen, 31 urteko bilbotarraren “Angeles caídos” izenburuko lanak irabazi du. Hirugarren postuan Bartzelonako Paco Alcazar geratu da. 24 urteko marrazkilari honek 30.000 pta.ko saria jasoko du “Sabes aguantar sin respirar, eso te ayudará en este trabajo” izeneko komikiagatik. Epaimahaia Kokoe Elkarteak kideek osatu dute eta hiru sariak ematerakoan adostasuna erabatekoa izan da. Aurten ez da elgoibartarrentzako saririk izan, aurreko edizioetan oso herritar gutxi aurkeztu baitira. Aurten bi baino ez dira aurkeztu, Asier Arizaga eta Andrés Elizondo Tejera. Dena den, bi hauen lanak, Estatutik eta Euskal Herritik bidalitako 41 lanen artetik aukeratutako 34 komikirekin batera ikusgai egongo dira

hilaren 17ra arte Kultur Etxeko erakusgelan prestatu den erakusketan.

Gaztetxoak

Atal honetan neska baten lana saritu da estrainekoz. Trapagako Amaia Ballesteros, 17 urteko gaztea, izan da irabazlea. “Erdi aroko komeriak” izena dauka lanak eta euskaraz eginda dago. Hala ere, lan gehienak gaztelaniazkoak dira, komiki lehiaketa Estatu mailakoa baita. Orense, Bartzelona, Elche, Salamanca, Cuenca, Zamora eta beste herrialde batzuetako komikigileek hartu dute parte lehiaketan, bai eta Euskal Herriko hainbat herritakoek ere.

Lan gutxiago

Aurreko edizioarekin konpara-



tuz, aurten askoz ere lan gutxiago aurkeztu dira. Duela bi urte 100 lan inguru jaso ziren eta aurten 41 baino ez. Gai aldetik, egile bakoitzak nahi duenari buruz marrazteko aukera izan du. Dena den, zenbait lanetan komiki japoniarren, “manga” izenekoaren eragina nabaria izan da Kokoekoen esan digutenez.

HERRI-GAİN
ERRETEGIA
 San Pedro auzoa 4
 (☎ 74 30 40) ELGOIBAR

MIREN
 arrandegia

Santa Ana
 74 34 49
ELGOIBAR

ELENA
 ileapaindegia
 Depilazio Elektrikoa
 San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

JATETXEA
ETA
TABERNA
 P. Muguruza 8. ☎ 74 08 21

Zigor Gazkez

26 urte dituen elgoibartar honen ahotsak zeresan handia emango du aurrerantzean. Hasteko, orain bi aste Euskadi Gaztean izan zen entzuleei kontzertu txiki bat eskaintzen eta joan den ostiralean, Azkoitiko Baztartxo antzokian John Martin abeslari irlandarraren teloneroa izan zen. Kitarra hartu eta berak eginiko abestiak kantatzen ditu Zigorrek, ingelesez gehienak.



- Umetatik al duzu musikarako afizioa?

- Bai, eskolan itxen ez nabana etxian itxen naban, nere kontura. Han ez naban ez solfeorik ez musikarik ikasi baina etxera etortzen nitzanian, nere gelara sartzen nitzan, diskuak ipini eta nere kontura ikasi naban dana, gitarra, armonikia...

- Eta ingelesa.

- Bai. Diskuak ingelesez entzutzen nitxuan eta gustatzen jatazen abestixak apuntatzen juten nitzan. Akatsak eitxen ditxut baina... Abestixa entzun eta zoezer ez nabanian ulertzen, esanahixa ez nakixanian, hiztegi-xan begiratu eta listo.

- Ingelesez abesten duzu, ez?

- Eta euskeraz ere bai. Hasierako abestixak euskeraz ein nitxun. Gero ingelesez hasi

nitzan eta oin berriro ari naiz euskeraz konposatzen.

- Zenbat abesti dituzu?

- Ez dakitx, asko. Derrentian okurrizten jatana idatzi ei-txen dot, bai musikia bai eta letria ere.

- Eta zeri buruzko letrak dira?

- Maitasunari buruz, gerrari buruz, gorrotoari buruz... Bizitzari buruz orokorrean.

- Grabatu ere zuk zeuk egiten duzu.

- Bai, oin dala zortzi urte hasi nitzan, etxian dakaten kasete zahar batekin. Oin maketa bat atera dot sei abestekin. Zigor M.100 izena ipini diot. Grabazio bakoitzari zenbaki bat ipintzen diot.

- Zein da zure helburua?


- Ikusiko dogu ze pasatzen dan ze merkatua hain dao zaila!


- Lehen pausoa eman duzu behintzat.

- Bai, bueno jendian aurrian lehen ere jo izan dot. Lagunartian, kuadrilakuak juntatzen geranian edo Lanbroan eitxen dotenez lan, tabernia itxitzera kuan... Neretzat debuta lehengo egunian Euskadi Irratian jo nabanian izan zan eta gero ostiralian Azkoitxin eta John Martinen telonero izatia ere kriston flasha izan zan.

- Eta nola iritsi zinen horretara?

- Ruper Ordorikarekin egon nitzan behin eta nere zinta bat eman nion. Irratira bialdu zaban eta... holaxe. Hemendik aurrera pauso asko ematia espero dot.

**Mandiola S.L. Egurrak**
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



Salerosketak

PISTAKO BIZIKLETA bat saltzen dut egoera oso onean dago. Berria.
☎ 74 01 84

Komedorerako aulki batzuk saltzen ditut. Egoera oso onean daude.
☎ 74 37 22 (goizez 8-10)

3 urteko ASTOA eta pare bat urteko BEHI ESNEDUN erosiko genituzke.
☎ 74 37 68 Antonio (aranbeltz baserria)

1,05 oherako BI EDREDOI SALTZEN DITUT modu onean.
☎ 74 05 67 Maria Luisa

MENDIKO BIZIKLETA txiki bat saldu nahi dut. Orbea markakoa.
☎ 74 34 06

GAC ZIKLOMOTORE BAT saltzen dut. Lau urte ditu, beltza eta aseguria dauka 96ko maiatza arte. Ia berria dago, 50.000 pta. Ikusteko: CIMDE P. Muguruza 23
☎ 74 08 52 / 74 02 43 Txus

FRIGORIFIKO TXIKI BAT saltzen dut. Estrenatu gabe. 23.000 pta.
☎ 74 01 51

Opel Kadet GSI 1.800 inyección SS-AJ 76.000 km. salgai.
☎ 19 19 54

BI AKUMULADORE eta HIRU BEROGAILU salgai. Erabili gabe, egoera oso onean.
☎ 74 09 23

ARMAIRU BAT saldu nahi dut: biltzen den ohea, 6 kajoi, bi sekreter eta abar... Prezio onean.
☎ 74 15 75

Etxebizitzak

PISU BAT ALOKATUKO NUKE Elgoibarren.
☎ 74 21 25 Antxon Salegi

ETXEBIZITZA BAT saltzen dut SORALUZEN.
☎ 74 34 05 / 74 34 06
M. Carmen edo Aurora

ETXE BAT SALTZEN dut Santa Ana kalean. Egoera oso onean eta igogailuarekin.
☎ 74 36 34 / 74 38 41 Pili

PISU BAT ALOKATU NAHI DUT neska batekin Elgoibarren edo Eibarren.
☎ 74 16 30 Mario Oliva
Goizez 9,30-13,30

ETXEBIZITZA BAT ALOKATU NAHI DUT Elgoibarren. Altzariak badauzka hobe.
☎ 74 28 36

Pertsona bat behar dut Donostiako OKENDO kalean PISUA konpartitzeko.
☎ 42 51 49

Lana

Neska bat KANGURO LANAK egiteko prest dago.
☎ 74 24 53 Yoli

Dietetika eta Nutrizio tekniko espezialista, klinika auxiliar eta farmazia auxiliar tituluduna lanerako prest dago.
☎ 74 24 48 Marta

Neska euskaldun bat ETXEKO LANAK EDO UMEAK ZAINTZEKO PREST dago.
☎ 74 07 82 Aurkene
☎ 14 77 64 Manoli

Mendaroko baserri batean gaixo bat zaintzeko emakume bat behar da. Egunean ordubete. Hobe Mendarokoa bada.
☎ 15 04 41 Maribel

Garajeak

GARAJE ITXI BAT saltzen dut Arregitorren. 38,19 m²
☎ 74 30 81
Gaeko 9,30etatik aurrera

Partikularrak

Injinerutza eta magisteritza tituludunak KLASE PARTIKULARRAK ematen ditu.
☎ 74 01 48 Alazne

MARRAZKETA LINEAL ETA DIEDRIKOKO klaseak ematen ditut.
☎ 74 43 98 / 74 34 01 Iñaki

OHoko KLASE PARTIKULARRAK ematen ditugu Elgoibarren.
☎ 68 20 42 / 67 06 49

Agurrak

Rigo-Mer, 126 ez dira egunero betetzen. Maitasun osoz ZORIONAK Lady-Maryam

Urriaren 26an eta 30ean 15 urte egin zituzten EVARI eta IRUNERI zorionak lagunentz partetik.

Bestelakoak

Domekan ERAZTUN BAT GALDU NUEN. Urrezko perla zuri altu bat eta koloretako perlak ditu inguruan.
☎ 74 03 44

Karitasek BI OHE TXIKI (80 cm/ 90 cm.) koltxoekin eta LABADORA bat behar ditu.
☎ 74 15 09 - 74 12 57

URRIAN

Jaiotakoak

- Cristina Fernandez Araya (Urriak 4)
- Amaia Loiola Txurruka (Urriak 13)
- Nerea García Rodriguez (Urriak 15)
- Josu Etxaniz Urbiola (Urriak 17)
- Cristina Martín Suarez (Urriak 22)

Ezkondutakoak

- Ruben Charles Etxeberria eta Mercedes Alejandre Pinto (Urriak 12)

Hildakoak

- Jesus Idiakez Loiola, 75 urte (Urriak 3)
- Justo Rodriguez Maestro, 95 urte (Urriak 13)
- Joaquin Ormazabal, 61 urte (Urriak 26)
- Florencia Iranzo Pardo, 88 urte (Urriak 31)
- Ricardo González Varela, 31 urte (Urriak 31)

3 OSTIRALA

22,15 TXOTXONGILOAK

Taun Taun taldea
"Makinatu" antzezlan
✓ Herriko Antzokian
Sarrera: 400 pta. Gazte txartelarekin eta jubilatua 250 pta.

4 LARUNBATA

16,00 EGINeko MUS TXAPELKETA

✓ Kimetz elkartean

16,00 MUS TXAPELKETA

✓ La Unión elkartean (bazkideentzat)

19,30-22,15 ZINEA

"Waterworld"

5 IGANDEA

16,30-19,30-22,15 ZINEA

"Waterworld"

18,00 DANTZALDIA

Gelatxo taldearekin
✓ Jubilatuen Etxean

6 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

"Waterworld"

7 ASTEARTEA

13,00 TXOMIN ARTOLAREN KANTALDIA

Institutuko ikasleentzat
✓ Mekanikako Areto nagusian

15,00 GURASO ESKOLA

✓ Kultur Etxean
Antolatzailea: Udal Ongizate Saila

20,00 HBren BILERA

Gaia: Oldartzen (emendakinak)
✓ Kimetz Elkartean

22,00 ZINEA

"Killing Zoe"

9 OSTEguna

20,00 GARAPEN PERTSONAL IKASTAROARI BURUZKO BILERA INFORMATIBOA

✓ Kultur Etxean

10 OSTIRALA

22,15 ZINEA

"Marea roja"

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
4, larunbata:	Etxeberria	Etxeberria
5, igandea:	Etxeberria	Etxeberria
6, astelehena:	Ormazabal	Ormazabal
7, asteartea:	Ormazabal	Ormazabal
8, asteazkena:	Ormazabal	Ormazabal
9, osteguna:	Ormazabal	Ormazabal
10, ostirala:	Yudego	Yudego

OKINDEGIA:

5, igandea: IDARRAGA

ZineA

Waterworld

Zuzendaria: Kevin Costner
Antzezleak: Kevin Costner, Dennis Hopper, Jeanne Tripplehorn, Tina Majorino.

Poloak urtu egin dira lurra gehiegi berotu delako. Mundua urez estalia dago eta artifizialki eraikitako atoloi modukoetan bizi da jendea. Waterworld-eko biztanleak Smokers izeneko piraten beldur dira. Mariner (Kevin Costner) atoloi batera heltzen da lehengairik preziatuena den lurraren truke janaria eta ura lortzeko. Smokers izenekoek atoloia erasotuko dute bera han dagoela eta Mariner-ek ihes egiten du Helen eta Enola berarekin eramaten dituelarik.

Killing Zoe

Zuzendaria: Roger Avary
Antzezleak: Eric Stoltz, Jean-Huges Anglade, Julie Delpy.
Zed, Eric-ekin batera Pariseko banketxe batean lapurtzeko doa Parisera. Behin Parisen, taxista batek gaua igarotzeko "emazte" bat eskaintzen dio. Hotelean, Zoe izeneko neskekin berehala konektatuko du. Ohean daudela, Eric iristen da eta Zoe gelatik bidaltzen du. Hurrengo egunean banketxean sartzen dira. Zoek, bertan egiten du lan egunean zehar. Egoera ezin kontrolatuta, Eric-ek Zoe bahitzen du ihes egin ahal izateko.








Antonio Arrillaga, 14 behea
Tel 74 01 80 • 20870 **ELGOIBAR**

ORDUTEGIA:
9,00 - 13,00 eta 5,00 - 8,30
larunbatetan 9,00 - 13,30



Galdetu al diozu inoiz zeure buruari zergatik diren gehien saltzen direnak?



Etxe **EZAGUNA** etxe **ONA** delako.

EIBARKO LIBURU AZOKA

Azaroaren 10etik 19ra



ORDUTEGIA

LANEGUNAK: Goizez 11,30-14,00 • Arratsaldez 17,30-21,30

JAIEGUNAK: Goizez 12,00-14,30 • Arratsaldez 17,30-22,00

ANTOLATZAILEA: Euskadiko Liburu Azoken Batzordea

BABESLEA: Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila • LAGUNTZAILEA: Eibarko Udala - Kultura Saila